



EUSKADIKO SEGURTASUN PUBLIKOAREN PLAN OROKORRA 2014- 2019

2015eko uztailetik 2016ko ekainera bitarteko
ebaluazioa



AURKIBIDEA

SARRERA

LABURPEN EXEKUTIBOA

ARRISKU ETA MEHATXUAK EUSKADIN

ARDATZEN-ARRISKUEN-JARDUERA ILDOEN ARTEKO HARREMAN-TAULA

JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

- Jarraipenerako adierazleak

SARRERA

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorraren helburu nagusia pertsonen, ondasunen eta ingurumenaren segurtasuna bermatzea da.

Helburu hori lortu ahal izateko, jendeak eskubide eta askatasunak bete-betean erabil ditzan, eta herritarrak bakean, elkarbizitzan, ongizatean eta gizarte kohesionatuan bizi daitezen, plan honek horretarako beharrezkoak eta egokiak diren baldintzak sustatu behar ditu eta eskubide eta askatasun horiek erabiltzea oztopa ditzaketenak ezabatzeko jarduerak bultzatu behar ditu. Era berean, arriskuak murrizten dituzten jarduerak ere sustatu behar ditu. Hori guztia segurtasun indibiduala zein kolektiboa lortzeko helburuarekin.

Jarraitu nahi den segurtasun-estrategiak Europar Batasunak emandakoaren printzipio eta helburuen isla izan nahi du. Horretan, Askatasun, Segurtasun eta Justizia Esparru bat sortzeko konpromiso sendoa azaltzen da, aldi berean, etengabe aldatzen dabilen mundu honetan aurre egin behar izaten diegun arrisku eta mehatxuei aurre egin ahal izateko. Konpromiso horren ondorioz, besteak beste, segurtasun ezaren kausei aurre egin behar diegu eta prebentzioari eta aurre hartzeari lehentasuna eman. Horretarako, gizartearen sektore guztiak inplikatu behar ditugu eta segurtasuna denon ardura dela ulertarazi behar diegu.

Hori dela eta, Plan hau Gobernuaren plan bat da, erakunde guztiei eragiten baitie. Horrela, segurtasun integraleko sistema bat ezarri nahi da, hau da, segurtasuneko sektore guztietara iritsiko den sistema oso bat. Plan horrek barne hartuko ditu sektore hauek guztiak: herritarren segurtasuna, bide segurtasuna, segurtasun teknologikoa, etab., hondamendi naturalak eta giza jarduerak sortutakoak ere barne hartuta.

Segurtasun publikoaren sistemaren printzipioen oinarriak hauek dira: herritarrek dituzten beharrezkoen ezaguera eta zerbitzu publikoa beharrezko haiei egokitzea. Horretarako ezinbestekoa da arazoak hauteman eta identifikatzea, erantzuna prestatu eta burutzea, eta emaitzak ebaluatzea. Horren guztiaren helburu estrategikoa da erresilientzia maila instituzionalean ezartzea, segurtasunari lagundu eta horren alde egingo duen elementu propio gisa.

Horiek horrela, sistemen ikuspegia hartzea eta konponbide multidimentsionalak identifikatzea erresilientzia garatzeko funtsezko elementuak dira.

Beraz, erresilientzia printzipio edo helburu estrategiko gisa ezarrita dago, erakundeak eta herritarrak aurkako edozein gertakariren aurrean prest egon daitezen.

Segurtasun sistema integralak segurtasun-politika gidatuko du eta hiru zutabe estrategiko hauetan oinarrituko da:

- 1.- Herritarrengana gehiago hurbiltzea, betiere kontuan hartuta sistema osoa herritarren ardatzaren inguruan egituratu behar dela.
- 2.- Giza baliabide eta baliabide teknologikoak efikazia eta efizientzia handiagoz erabiltzea.
- 3.- Lankidetzeta handiagoa gizarte-, erakunde- eta polizia-agente guztien artean.



Hiru zutabe horiek kontuan hartuta, Euskadiko Segurtasun Plan Orokorraren helburuak lortzen lagunduko duten ardatz eta ildo estrategikoak ezarri dira:

Ardatzak	Ildo estrategikoak
1. ardatza: Herritarrentzako zerbitzua	1.1.Ertzaintzan gizarte-ezagumendu maila handia lortzea hurbiltasunarengatik eta eragingarritasunarengatik 1.2.Prebentzio aktiboan oinarritutako eta inteligentzia eta ikerketa kriminal batean bermatutako zerbitzua eskaintzea 1.3.Herritarrei ematen zaion arreta eta polizia- establezimenduen segurtasun-baldintzak hobetzea 1.4.Ikuskizun eta jolas-jardueretako lokalen segurtasuna hobetzea 1.5.Indarkeria, arrazismo-espresioak, xenofobia eta, oro har intolerantzia-jarrerak desagerraraztea kirolean 1.6.Lankidetzeta eta koordinazioa kanpo-agenteekin 1.7.Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa
2. ardatza: Plangintza	2.1.Ertzaintzan gizarte-ezagumendu maila handia lortzea hurbiltasunarengatik eta eragingarritasunarengatik 2.2.Prebentzio aktiboan oinarritutako eta inteligentzia eta ikerketa kriminal batean bermatutako zerbitzua eskaintzea 2.3.Ertzaintzaren kudeaketara gaineratzea etengabeko hobekuntza eta besteekin lankidetzeta, haren erantzuna premia berrietara egokitzeko 2.4.Ertzaintza osatzen duten pertsonen konpromisoa eta barne-kohesioa 2.5.Babes Zibil eta Larrialdien arloko plangintza eguneratzea 2.6.Euskadiko Joko Sistemaren Ikuspegi Integrala 2.7.Datuak eta informazioa jasotzea eta trukatea 2.8.Euskadiko bide-segurtasuneko plan estrategikoa
3. ardatza: Koordinazioa	3.1.Prebentzio aktiboan oinarritutako eta inteligentzia eta ikerketa kriminal eraginkor batean bermatutako zerbitzua eskaintzea 3.2 ildo estrategikoa Ertzaintzaren kudeaketara gehitzea etengabeko hobekuntza eta besteekin lankidetzeta, haren erantzuna premia berrietara egokitzeko 3.3.Ertzaintza osatzen duten pertsonen konpromisoa eta barne-kohesioa 3.4.Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren zerbitzuen eta sistema ahalbidetzen duten erreminten koordinazioa hobetzea 3.5.Euskal Polizia Koordinatzeko Sistema bat ezartzea (Ertzaintza eta Tokiko Polizia/Udaltzaingoa) 3.6.Osagarritasuna beste administrazio batzuekin 3.7.Ekinbide Segurtasun Sistema Hobetzeko Herritarren Ekimenetarako Bulegoa antolatzea eta kudeatzea 3.8.Segurtasun Publikoaren Estadistika Organo Espezifikoa kudeatzea
4. ardatza: Prestakuntza	4.1.Ertzaintza osatzen duten pertsonen konpromisoa eta barne-kohesioa 4.2.Larrialdietako eta meteorologiako arloan prestakuntza herritarrei eta Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren zerbitzuei 4.3.Jokoaren eta ikuskizunen arloan barne- eta kanpo-prestakuntza 4.4.Hezkuntza eta prestakuntza
5. ardatza: Komunikazioa	5.1.Ertzaintzan gizarte-ezagumendu maila handia lortzea hurbiltasunarengatik eta eragingarritasunarengatik 5.2.Ertzaintzaren kudeaketara gehitzea etengabeko hobekuntza eta besteekin lankidetzeta, haren erantzuna premia berrietara egokitzeko 5.3.Ertzaintza osatzen duten pertsonen konpromisoa eta barne-kohesioa 5.4.Herritarrarekin komunikatzeko sistema eta prozedurak eguneratzea 5.5.Salaketak eta baimenak izapidetzea 5.6.Herritarrentzako informazioa



LABURPEN EXEKUTIBOA

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra egin zenetik bi urte igaro direnez, bigarren ebaluaketa egin da, 2015eko uztailetik 2016ko ekainera bitarteko tartea kontuan hartuta.

Segurtasun Saila osatzen duten Zuzendaritzek aldi horretan zehar lanean jarraitu dute Plan honetan jasotako zutabe estrategikoei begira:

- 1.- Herritarrengana gehiago hurbiltzea, betiere kontuan hartuta sistema osoa herritarren ardatzaren inguruan egituratu behar dela.
- 2.- Giza baliabide eta baliabide teknologikoak efikazia eta efizientzia handiagoz erabiltzea.
- 3.- Lankidetzeta handiagoa gizarte-, erakunde- eta polizia-agente guztien artean.

Horiek gauzatzen eta garatzen dira 5 ardatz hauen inguruan:

1. Herritarrentzako zerbitzua,
2. Planifikazioa,
3. Koordinazioa,
4. Prestakuntza
5. Komunikazioa.

Ardatz horiek oinarri hartuta, Zuzendaritzaren lan-dinamika egituratu da eta jarraian azaltzen da egin den lana:

HERRITARRENTZAKO ZERBITZUA



Ertzaintzaren Zuzendaritzak Euskadiko lurralde osoan agente uniformatuen presentzia handitzeko helburuarekin, hainbat jarduera estrategiko ezarri zituen. Helburu hori lortzeko jarduera batzuk egin dira, besteak beste, Unitateen dotazio-irizpideak berrikustea eta, horren ondorioz, Lanpostu Zerrenda (LZ) berri bat sortu da, helburua lor dadin sustatzeko, eta beraz, hautematen den segurtasun maila handitzeko ere.

Herritarrak prozesuen erdigunea izan daitezen helburuarekin, aurretiko zita ezarri da eta kalkoa daukaten salaketa-orriak ere bai, polizia-zentroetako izapideekin lotutako arlo guztiak sinplifikatzeko.

Horrez gain, Ertzaintzak gizartearekiko hurbiltasun handiagoa izan dezan, hainbat neurri gauzatu dira, besteak beste: oinez egiten diren patruila kopurua (korrikas) handitu dira, jendaurreko bulegoetako telefono bidezko zein aurrez aurreko arretarako irizpideak berrikusi eta hobetu dira, landa inguruneari arreta emateko plan berezia garatu da eta herritarren eta Ertzaintzaren arteko komunikazio-kanalak sustatu dira, herritarrek jasotako zerbitzuek eragin dizkieten haserre edo nahigabeak adieraz ditzaten, kexa, erreklamazio

edo iradokizunen bitartez. Ikusi dugu ebaluatzen ibili garen garaian kexa kopurua handitu dela, hiru faktore hauengatik:

- Lehen faktorea da herritar gehiagok dakitela kexak aurkez ditzaketela Ekinbideren bitartez, posta elektronikoz edo 112 telefonora deituz.
- Bigarren faktorea da herritarrek gehiagotan eskatzen dutela beren eskubideak bete daitezela eta Ertzaintzaren lanari ere, Euskal herritarrentzako zerbitzu publikoa den aldetik, gehiago eskatzen diotela.
- Kexa gehiago jasotzen direla azaltzeko beste faktore garrantzitsu bat da herritarrek ikusten dutela beren eskakizunek jarraipena eta erantzun pertsonalizatua jasotzen dutela eta horrek ekintza horiek modu positiboan sustatzen ditu; izan ere, herritarrak ez dauka kexek ezertarako balio ez dutelako edo kasurik egiten ez zaielako sentsazioa.

Ildo estrategiko honen barruan Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin izenpetutako lankidetzahitzarmena azpimarratu behar da, giza esfortzua eta inplikazio maila altua eskatzen duelako; izan ere, hitzarmen horri esker, ertzainak ikasgeletara sartzen dira gizartean interes handikoak diren eta alarma sor dezaketen gaien inguruko prestakuntza-hitzaldiak emateko (eskola jazarpena, genero indarkeria, ziberbullying-a, etab.). Horietan kausak ez ezik, hautemateko zantzuak eta jarduteko jarraibide posibleak ere azaltzen dira.

Prestakuntza-hitzaldi horiek, prebentziokoak ere badirenak, beste gizarte talde eta profesional batzuei ere eman zaizkie, delitu mota zehatz batzuen biktima potentzialak direlako.



Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza Europar Batasunaren “alderantzizko 112” ekimenean sakontzen dabil. Horretarako hainbat ekintza eta proposamen ditu esku artean: teknikari eskudunak gaitzeko agindua kudeatzea, datu-base publiko bat sortzea, autobabes-planak sustatzea eta larrialdi-zerbitzuak antolatzea, azken horretarako erregistro informatiko bat ezarri.



Ikuskizun eta jolas-jardueretarako lokalen segurtasuna handitzeko ildo estrategikoaren barruan, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren eskumen-esparruari mesede egin dio abenduaren 23ko 10/2015 Legea, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena, onartu izanak, horren bidez, tokiko erakundeen eta Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren artean eskumenak banatzeko mekanismoak ezarri nahi direlako. Lege horretan jasotzen da lokal, ikuskizun eta jolas jardueretarako lizentziak emateko baldintzak edo neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozedura, eta Lege berria garatzeko araudiaren onarpena egiteko dago.

Era berean, zezen-ikuskizunekin lotuta, lagin biologikoak hartzea arautu da hauen bidez: 2015eko abuztuaren 3ko Agindua eta Joko eta Ikuskizunen zuzendariak 2015eko eta 2016ko zezen-denboraldietarako zezenketetarako abereei ausaz post-mortem analisiak egiteari buruz emandako ebazpenak.

Azkenik, Zuzendaritza horren barruan ere azpimarratzekoa da kiroleko arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkako borroka, eta horren adierazlea da Segurtasun Sailarekin kirol-klub gehiagok lankidetzahitzarmenak sinatu izana. Gainera, indarkeriazko edo intolerantziako jokabideak ekiditeko eta desagerrarazteko, horrelako jokabideen ardura daukaten pertsonen edo entitateen zehapen-espedienteak irekitzen jarraitzen da.



PLANIFIKAZIOA



Ertzaintzaren Zuzendaritzan gobernantza-eredu berri bat definitu du, neurtzeko eta kontrolatzeko tresnak hobetzeko helburuarekin, baita dauden adierazleak berrikusteko eta aginte-taula integral bat diseinatzeko helburuarekin ere.

Gure helburua prebentzio aktiboan oinarritutako zerbitzu bat ematea da eta horretarako, informazio-taldeen egiturak egokitu dira eta ikerketarako gaur egungo eredu berrikusi da. Hori dela eta, ikerketarako eredu integral bat sortu da, inteligentzia lagun duena. Bi elementu horiek bat eginda aurreikusten dugu Plan honen helburua modu eraginkorrago batean lortuko dugula eta baliabideak efizientzia handiagoz erabiliko ditugula.

Polizia Tekniko eta Zientifikoaren zerbitzuak sustatu dira eta begi-ikuskapenaren prozesua hobetu da, begi-ikuskapenentarako eskualdeetako taldeak sortu direlako, talde horien prestakuntza indartu eta eguneratu delako eta behar duten materiala eman zaielako. Arlo horri dagokionean, ebidentziak jasotzeko eta tratatzeko prozesua ere berrikusi da.

Beste lan-plataforma bat arduratu da etengabeko hobekuntza kudeatzeaz eta kudeaketa-adierazleak alderatzeko barruko sistema bat ezarri du. Aurrerabide eredu ezarri da, bikaintasunaren oinarritzko printzipioak eta kalitatea kudeatzeko sistemaren berrikuspena kontuan hartuta, hain zuzen, atxilotze-prozesuan eta Genero Indarkeriaren arloan.



Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzan Babes zibilaren eta Larrialdien arloko planifikazioa eguneratu du lege honen bidez: Larrialdiak Kudeatzeko Legea aldatzekoa den 5/2016 Legea, apirilaren 21ekoa. Halaber, urtarrilaren 13ko 1/2015 Dekretua onartu da, hau da, Euskadiko Babes Zibileko Planaren berrikuspen berezi bat, baita 2016ko otsailaren 1eko Agindua, taktika operatiboak hirugarren aldiz aldatzen dituen, ere.



Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza, planifikazio-ildoaren barruan, jokoaren erregelamendu orokorraren proposamen bat landu du, Euskadiko jokoaren sektorean planifikazio integral bat barne hartzen duena. Horrez gain, Euskadiko Jokoari buruzko "Bigarren Liburu Zuria" aurkeztu da, sektorearen oraina eta geroa azaltzeko.

Bestalde, joko arduratsuari buruzko sentsibilizazio- eta informazio-kanpainen barruan, gai hori jorratzen duen bideojoko bat egiteko lan egin da.



Trafiko Zuzendaritzak ildo estrategikotzat hartu zuen Euskadiko Bide-Segurutasunaren arloko Plan Estrategikoa egitea eta ezartzea, eta horren emaitza da Bide Segurutasunaren eta Mugikortasun Seguru eta Iraunkorraren Plan Estrategikoa 2015-2020 argitaratu izana. Plan horretan azpimarratzen da Bide-Segurutasunaren arloan arian-arian aldaketa kulturala gertatzen ari dela eta horrek eragiten du Euskal Autonomia Erkidegoko errepideetako istripu-tasa murriztea. Halaber, planak garrantzi handia ematen die inplikaturako guztien lankidetzaren beharrari eta horien konpromisoari, beheranzko joera horretan jarraitzeko. Horretarako ere, horri hezkuntzaren aldetik heltzea ezinbestekotzat jotzen du, baita bide-segurutasunaren arloan sentsibilizazioa, herritarren prestakuntza eta kontzientziazioa sustatzea ere.

Era berean, Zuzendaritza horretan etengabeko hobekuntza- eta berrikuntza-sistema bat jarri da martxan eta Kudeaketa Aurreratuaren eredu bat ezartzen ari da, Eusko Jaurlaritzako Aurrerabide eredian oinarritutakoa. Eredu horrekin parte-hartzea, lankidetzeta eta beste Administrazio publiko eta pribatu batzuekiko aliantzak sustatu nahi dira.

KOORDINAZIOA



Ertzaintzaren Zuzendaritzak beretzat helburu hau hartu zuen: polizia-organismoetan parte hartuz eta lankidetzan arituz, Ertzaintza polizia-foro internazionaletan sartzea, eta lankidetzeta internazionalerako alde biko harremanak sustatzea, beste erakunde batzuekin hartu-emanetan ibiltzearekin batera.

Hori Europako segurtasun-estrategiarekin estuki lotuta dago, segurtasun arloan eskumenak dituzten agintaritzen arteko lankidetzeta estua ezartzeko eta handitzeko beharra azpimarratzen baitu; Izan ere, Europaren erronka da hainbat mehatxu berri eta konplexuri aurre egitea. Horren ondorioz, agintaritzeta guztiek batera lan egin behar dute, informazioa eta inteligentzia etengabe trukatu, Europar Batasunaren barruan norbanakoa babestuta dagoen segurtasun-esparru bat lortzeko helburuarekin.

Horri dagokionez, Europako erakundeek onartu dituzten hainbat lege-testutan segurtasun maila altua bermatzeko beharra azpimarratzen da, agintaritzeta polizial eta judizialen arteko lankidetzaren eta koordinazioaren bitartez, taldearen segurtasuna bermatzeko, eta hori Lurralde bakoitzaren barruko segurtasunean islatuko da.

Europar Batzordearen presidentek, Jean-Claude Juncker jaunak, azpimarratu zuen segurtasunaren arloan aldaketa kualitatibo bat eman behar dela, premiazkoa baita hauek konpontzea: gaur egun dauden hutsuneak, informazioa trukatzeko tresnen sakabanaketa eta muga operatiboak; kooperazio egiturak ahalik eta eraginkorrenak izatea bermatzeko helburuarekin.

Halaber, erantsi zuen Estatu kideen kultura-aldaketa ere beharrezkoa dela, horien agintaritzeta polizialek eta polizia guzti-guztiek informazioa partekatzeko eta sistematikoki lankidetzan jarduteko ohitura har dezaten.

Ertzaintza segurtasun internazionalaren arloan guztiz integratzea erronka handia da eta, aurkitzen dituen trabak kontuan hartuta, ahalegin handia eskatzen du.

Orain dela gutxi argitaratu da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko maiatzaren 11ko Erregelamendua (EE), Lankidetzaren Polizialerako Europar Batasunaren Agentziari buruzkoa (Europol). Horrekin erronka hori lortzeko aurrera pausua eman dugu, testu horretan bereziki onartzen delako Estatu batzuetan egitura deszentralizatu bat existitzen dela eta informazioa azkar trukatu dela ziurtatzeko beharra dagoela. Europol-ak, Europako polizia-agentzia den aldetik, Estatuetakoz zerbitzu eskudunekin zuzenean lankidetzan jarduteko aukera izan behar du, baina horrek ez die zerbitzu horiek ezartzen dituzten baldintzei kalterik egiten eta unitate nazionaleri, eskatuz gero, informazioa eman behar zaie.

Lankidetzaren arloan, Ertzaintzak Udalekin, Udaltzaingoekin eta hiru Foru Aldundiekin dituen harremanak sistematizatzeko ahalegin handia egin du. Era berean, Euskadin dauden kontsultxeetako bulegoekin eta segurtasun pribatua eskaintzen duten enprekin dituen harremanetan ere aurrera pausuak eman dira.



Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak bere egin zuen Euskal Administrazioen segurtasun publikoko zerbitzu guztiek hartu beharreko estandarrak ezartzeko helburua. Esaterako, SOS Deiak-en Euskarri ezarri zen eta horrek hobekuntza ekarri zuen Euskarritik informazioko datu-baseetara sartzeko orduan, bereziki aipatu behar da autobabes-erregistroa.

Behaketa denbora-errealean egiteko sare hidro-ozeano-meteorologikoa mantentzeko eta berrantolatzeko, 6 itsas plataformak berrantolatu dira eta 2 geratu dira (Bilbao eta Pasaia) eta hirugarrena tramitazio-fasean dago. Gainera, URArekin kontrol hidrometrikorako 4 gune berri jarri dira.



Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzak Euskal Polizia-zerbitzuak (Ertzaintza eta Udaltzaingoa) koordinatzeko eta elkarrekin lankidetzan aritzeko mekanismoak sustatu ditu, horretarako jardura bateratuak eginez, esaterako, ekipamenduak, 11 Udaltzaingoren ibilgailuen errotulazioa bereziki, aztertze lan-taldearen bilerak; hautapen- eta prestakuntza-taldearen bilerak, Udaltzaingoen behin behineko agenteen lan-poltsarako bigarren dei bat egitea ezartzeko; eta gainera, hautaketa-prozesuen bateratze-lanean ibili gara.

Araudiaren inguruko lan-taldeak lan handia egin du eta emaitzak hauek izan dira:

- Poliziari buruzko Legea 5. aldiz aldatzeko lege-proiektua, Eusko Legebiltzarrak tramitera onartu duena.
- Ibarako Udaltzaingoa sortzeko baimena
- Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak onartzeko eta Larrialdietan Koordinatuta Esku-hartzeko Zerbitzua sortzeko den Agindua hirugarren aldiz aldatzeko dena argitaratu da.
- 109/2016 Dekretua, uztailaren 12koa, Euskadiko Poliziaren Datuak Prestatzeko Zentroari buruzkoa (EPDPZ).
- 57/2015 Dekretua, tokiko polizia-koordinaziorako Batzordeen osareri eta funtzionamendu-erregimenari buruzkoa.
- 58/2015 Dekretua, Euskadiko udaltzaingoen antolamenduari eta funtzionamenduari aplikagarri zaizkion esparru-arauak ezartzen dituena. Azken horri dagokionean ere, garatzen dabil Lehenengo Xedapen Iragankorrean ezarritakoa, Euskadiko Udaltzaingoen antolamenduari eta

funtzionamenduari buruzko Erregelamendu Eredua, baita Burutza-lanpostuak izendatzeko gomendatzen den prozedura ere.

Prozedura eta diligentzia polizialen lan-taldeak eguneroko polizia-lanetako diligentzien ereduak lantzen jardun du.

Azpiraratzekoa da Udaltzaingoen eta Ertzaintzak prebentziozko plan bateratuak ezartzeko egin duten lana. Hauek prebenitzeko planak:

- Lapurretak etxebizitzetan: Vitoria-Gasteiz, Laudio, Bilbao, Portugalete, Ondarroa, Donostia, Errearteria, Hernani eta Urola-Kosta
- Lapurretak leku itxietan, garajeetan eta trastelekuetan: Bilbao, Donostia, Vitoria-Gasteiz
- Lapurretak enpresetan eta komertzioetan: Vitoria-Gasteiz, Sestao eta Muskiz
- Segurtasun dispositibo komunak, herrietako jaietarako.

Trafiko Zuzendaritzarekin bilerak egiten jarraitzen dugu, Ertzaintzak eta Udaltzaingoen zaintza- eta kontrol-egutegia ezar dezaten, eta bide-segurtasunarekin lotutako prebentzio-kanpainak sustatzen jarraitzeko.

Aldi honetan zehar, lege-aldaketa handiak izan dira, besteak beste, Herritarren Segurtasunerako lege berria, eta horren ondorioz, prozedura polizialak legezko manu berrietara egokitu behar izan dira.

Azkenik, adierazi behar da Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzak berdintasunerako lan-talde bat eratu duela eta talde hori lehenengo pausuak ematen hasi dela, berdintasun politikak, emakume eta gizonen arteko berdintasun erreal eta efektiboan aurrera egitekoak, errealitate bihurtzeko helburuarekin.

Europa mailan emakume udaltzainak European Network Policewomen-en (ENP) integra daitezela sustatzen ari da. Horrek berarekin dakar emakume poliziek polizia kidegoen barruan daukaten posizioa optimizatzea hauen bitartez: generoaren integrazioa, dibertsitatearen kudeaketa eta polizia europarrarentzat interesezkoak diren gaur egungo gaiei buruzko praktika onen elkartruke internazionala.



Trafiko Zuzendaritzak DGTrekin eta zenbait euskal udalekin lankidetzeta-hitzarmenak formalizatu ditu, bideko istripu-tasari eta ezbehar-tasari buruzko datuak biltzeko eta horiei buruz informatzeko lanak koordinatzeko helburuarekin. Udalekin lankidetzan aritzen da, Bide-Helbide Elektronikoaren bitartez trafikoko arau-haustek jakinarazteko Eusko Jaurlaritzaren plataforma erabil dezaten sustatzeko.



Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak Euskadiko udaletako ordezkariekin hainbat bilera egin ditu; alde batetik, Jendaurreko ikuskizun eta jolas-jarduerei buruzko lege berriak ekartzen dituen aldaketei buruz informatzeko; eta bestetik, Legea garatzeko erregelamenduaren (lantzen ari dena) ildo orokorrak jakinarazteko. Halaber, bilera horien helburua udal administrazioek aisialdiko jardueren erregulazioarekin lotuta izaten dituzten arazoak eta iritziak ezagutzea ere bada. Horrez gain, parte-hartzeko foro bat ireki da, horri buruzko arazoak edo zalantzak adierazteko.

PRESTAKUNTZA



Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren lana da giza prestakuntza eta prestakuntza teknikoa sustatzea eta ebaluatzea, eta horretarako Ertzaintzaren eredu (Misioa, Ikuskera eta Balioak) prestakuntza akademikoan txertatu du eta Ertzaintzak prestakuntza diseinatzen eta ematen parte hartzea sustatu du.

Era berean, pertsonen segurtasuna ematea eta pertsona horien ondasunak babestea helburu duten zerbitzu guztiek interakzioan aritu beharko dutenez eta elkarri lagundu beharko diotenez, Akademiak bere jardura egokitu du zerbitzu horiek prestakuntzaren aldetik hobeto integra daitezzen finkatzen laguntzeko helburuarekin.

Horrekin lotuta azpimarratu behar da Suhiltzaile-Zerbitzuetako kideek eta Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzako kideek ere Ertzaintzaren 24. promozioaren Oinarriko Eskalako Agente kategorian sartzeko ikastaroan parte hartu dutela; edo Ertzaintzaren Unitateetako kideek suhiltzaile-zerbitzuetakoren batean suhiltzaile sartzeko ikastaroetan parte hartu dutela; eguneratzeko eta hobetzeko prestakuntza ematen jarraitu dela, baita sutearekin lotutako gertakarietan esku hartzeko ikastaroa ere. Ikastaro hori Suhiltzaile-Zerbitzuetako kideek Ertzaintzako agenteei zein hainbat udaltzaingotako kideei ematen diete eta oso emaitza ona izateaz gain, prestakuntza hori jaso izana arlo profesionalen islatzen da.

Horrez gain, ez da ahaztu behar Ertzaintzako, Udaltzaingoetako eta Suhiltzaile-Zerbitzuetako agintariei bereziki zuzendutako Zuzendaritza-gaitasunei buruzko hainbat ikastarotan batera parte hartu dutela. Ikastaro horietan ezagutza emateaz eta trebetasunak eta gaitasunak lantzeaz gain, esperientziak eta zalantzak partekatu dira eta segurtasun publikoaren arloan ardurak dauzkaten talde horien arteko harremanen garrantzia azaleratu da.

Era berean, Ertzaintzaren 24. promozioaren Oinarriko Eskalako agente kategorian sartzeko ikastaroa aipatu behar da; izan ere, prestakuntza-fase horretan gai izan ziren pertsonak hautapen-prozesuaren praktika-aldira igaro ziren, aldi hori Ertzaintzaren Herritarren Segurtasunerako Unitateetan egiteko. Aldi berean, Ertzaintzaren 25. promozioaren hautapen-fasea egin da eta promozio horretakoak 2015eko azaroaren 16tik Akademiaren prestakuntza jasotzen ari dira, nahiz eta promozio horri kanpotik, Segurtasun Sailatik kanpo, trabak jartzen ari zaizkion. Segurtasun Sailak ikusten du deialdia ezinbestekoa dela Ertzaintzan adinagatik gero eta agente gehiago ari direlako erretiroa hartzen eta ondorioz, plantilla berritu behar delako.

Udaltzaingoen barruan behin behineko agenteen lan-poltsa bigarren aldiz deitu da, hautapen-prozesuak egin dira eta behin behineko agenteen lehen prestakuntza-ikastaroa egin da.

Eskaini eta eman diren prestakuntza-ikastaroen barruan, Udaltzaingoen herritarren segurtasunaren zein ikerketaren arloko araubide juridikoari buruzko eguneratze-ikastaroetan parte hartu dute.

Desgaitasunen bat daukaten herritarrei arreta hobea emateko helburuarekin, gorrekin komunikatzeko estrategiak lantzen hasi gara.

Azkenik, Parez Pare jardunaldien zikloa finkatu dela aipatu nahi dugu eta bertan Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema osatzen duten pertsonen eta taldeen interesekoak izan daitezkeen gaiak txertatu direla:

- ✓ **Pertsona desagertuak: diziiplina arteko eta diziiplina anitzeko ikuspuntu batetik esku hartzea (2015/10/08)**
- ✓ **Polizia eta Fiskaltza gorroto-delituen aurrean (2015/10/16).**
- ✓ **Komunikazioaren kudeaketa Segurtasunean eta Larrialdietan (2015/10/29)**
- ✓ **Tren-istripuetan esku hartzea (2015/12/04)**
- ✓ **Lege-aldaketa eta horien eragina polizia arloan (2016/01/21)**
- ✓ **Lege-aldaketa eta horien eragina polizia arloan II: faltak, delitu arinak eta Herritarren Segurtasuna babesteko Lege Organikoa (2016/02/11)**
- ✓ **Islamismo erradikalari buruzko mintegia (otsailaren 24-25-26a)**
- ✓ **Gizakien salerosketa (2016/04/14)**
- ✓ **"Segurtasuna eta Giza eskubideak" nazioarteko kongresua (2016/05/05)**
- ✓ **Tratu txarrak adineko pertsoneri (2016/05/12)**
- ✓ **Errefuxiatuen gaia Segurtasunaren eta Larrialdien arlotik ikusita (2016/06/02)**



Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak Estatu eta Europar mailako sei proiektutan parte hartu du, larrialdien arloan eta meteorologiaren arloan ikerketarako eta prestakuntzarako foro teknikoak garatzeko helburuarekin. Foro horien artean azpimarratu behar dira, eragin publiko handia daukatelako, MAREA proiektua, EuskalAtlánticen kostaldeko arriskuen aurrean erabakiak hartzeko modalizazioei eta laguntzei buruzkoa; eta E-call proiektua, Europar Batasun osoan 112 zenbakira ibilgailutik deitzeko proiektua, eta dei hori automatikoki egiten da eskuz edo ibilgailuaren sentsoreak aktibatuz.



Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak barruko eta kanpoko prestakuntzari lehentasuna ematen dio, Joko eta Ikuskizunen arloarekin zerikusia daukaten ertzainen kualifikazioa hobetzeko, eta horretarako prestakuntza-ikastaroak ematen ditu gai hauei buruz: makinak eta joko-sistemak, autobabesa, material piroteknikoak eta Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas-Jarduerei buruzko lege berria. Era berean, udal administrazioetako langileei zuzendutako prestakuntza-jardunaldi batzuk egin dira, EUDELen eta IVAPen laguntzarekin, Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas-Jarduerei buruzko lege berria ezagutzera emateko.



Trafiko Zuzendaritzak, Euskadiko Bide-Segurtasunerako eta Mugikortasun Seguru eta Iraunkorrerako Plan Estrategikoan (2015-2020) jasotako orientazio estrategikoei begira, heziketaren eta prestakuntzaren arloan lan egiten jarraitzen du, baita mugikortasun segurua eta biderako jokabide eta ohitura seguruak sustatzen ere. Gainera, garrantzi handia ematen die mugikortasun segururako heziketa emango duten prestatzaileentzako ikastaroari eta arlo horretan balioak sustatzen dituzten materialak lantzeari.



"Seguru Baietz / Sí, seguro" eta "Harrapatzei buruzko gogoetak/Reflexionemos sobre los atropellos" dibulgazio-kanpainak egin ditu, baita bide-prestakuntzaren arloko kongresuak eta autoeskoletako irakasleen ikastaroak ere.

Zuzendaritzak kolektibo kalteberei zuzendutako kontzientziazio-kanpaina bereziak sustatu ditu eta bideko erabiltzaileei zuzendutako kanpaina orokorrak ere bai.

KOMUNIKAZIOA



Ertzaintzaren Zuzendaritzak irudi korporatiboa sustatzea eta indartzea ere helburutzat hartu zituen eta horretarako informazio-bide berriak, sare sozialen eta interneten bidez, ezarri ditu. Horren adierazle APP Ertzaintza dugu, larrialdi-egoerarako 112 telefonoaren erabileraz harantzago, herritarrekin harreman zuzena izateko dena. Horren emaitzak hemendik gutxira ikusten hasiko gara. Aplikazio horren bitartez, hauexek egin ahal dira: Ertzain-etxeetako helbide eta telefono-zenbakiei buruzko informazioa lortu; helbide elektronikoaren, WhatsApp-aren edo SMS-aren bidez harremanetan jarri; inprimaki anonimo bat erabili interesgarritzat jotzen den edozein informazio emateko, bideo zein argazki formatuko fitxategiak eransteko aukerarekin; Ertzaintzaren Prentsa Kabineteko ohar informatiboetara edo Segurtasun Sailak oporrei, itsasoari, mendiari, etxebizitzetako lapurretei, iruzurrei, maulei eta zibersegurtasunari buruz ematen dituen aholku erabilgarrietara sartu. Gainera, Ertzaintzaren twitterrean eta Trafikoko eta Euskalmeteko beste aplikazio batzuetan ere sartzeko aukera ematen du.

Ardatz honen barruan, Ertzaintzaren kudeaketan etengabeko hobekuntza txertatu zen, eta horretarako berrikuntzaren kultura sustatu da praktika onen foroak ezarriz eta ideia berriak ematea bultzatuz.



Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak lan egin du herritarrekin komunikatzeko sistemak eta prozedurak egokitzen. Horretarako, Euskalmeten irismen publikoa handitzea sustatu du telefono mugikorretan eta tabletetan meteorologiari buruzko informazioa ematen duen APP-aren bidez eta Zuzendaritzako langileak hedabideetan agertuz; eta jarraitzaile kopurua eta argitaratutako tuit kopurua handitu ditu, baita web orrira egiten den bisita kopurua ere.



Euskal bide-sareko trafikoarekin lotutako arreta zuzena, bat-batekoa eta erabakitzaileria dela kontuan hartuta, Trafiko Zuzendaritzak herritarrekiko komunikazioa sustatzen du tresna hauen bidez: Trafikoko web-orria, sare sozialak (Twitter), 24 orduko arreta telefonikoa eta APP Trafikoaren bidez kontsultatutako informazioa. Hedabideekin etengabeko harremana mantentze da, Euskadiko bide-sarean gertatzen denari buruzko informazio zehatza emateko.



ARRISKUAK ETA MEHATXUAK EUSKADIN

Planak erantzun nahi dien arrisku eta mehatxuak, beren jatorriaren arabera, hiru motatakoak izan daitezke:

- a) Naturalak: geologia- edo klima-faktoreak dira arrisku edo mehatxuen eragile zuzenak, eta ez giza presentzia edo giza jarduerak.
- a) Antropikoak: giza jarduera edo ekintzen ondorio direnak.
- a) Teknologikoak: arrisku antropikoak dira, garapen teknologikoaren eta teknologien aplikazio eta erabilera esanguratsuaren ondorioak.

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra egin zenetik, gure gizartean gertatzen direnek “zero arriskua” ez dela existitzen adierazten digute. Tipologia horretaz aparte, arrisku eta mehatxuak bilakatzen joaten dira eta horrek botere publikoak etengabe egokitzen ibiltzera behartzen ditu, prebentzioaren eta erresilientziaren ikuspegitik erantzun eraginkorra emateko, hauek guztiek ekar ditzaketen ondorioak ahalik eta gehien murrizteko: mehatxu terroristek, hondamendi naturalek, aldaketa klimatikoak, jarduera industrialen arriskuek, talde kriminalen jarduerak eta teknologia berrien erabilera kaltegarriak orokortzeak.

Terrorismoa, zibermehatxuak, delinkuentzia, larrialdi eta hondamendiak, azpiegitura kritikoaren eta oinarritzko zerbitzuen kalteberatasuna, indarkeria sexista, bideetako ezbehar-tasa dira gure gizartean presente dauden arrisku eta mehatxuak. Beraz, herritarrei esparru seguruan bizi daitezen bermatuko dieten erantzunak emateko estrategiak lantzen jarraitzen dugu.

Plana ebaluatzen ibili garen aldi honetan egiaztatu ahal izan da identifikatutako mehatxuen artean, terrorismoarenak, zehazki, terrorismo islamistaren mehatxu orokorrak, esparru europarraren barruan protagonismo handia hartu duela, Europako hiriburu garrantzitsuetan nahierara egindako ekintza terroristen ondorioz; eta gainera ekintza horiek eragin mediatiko eta sozial handia izan dute

Hori dela eta, Euskadi ez dago Europar Batasunaren estrategiatik kanpo, eta estrategia hori lau zutabe hauetan oinarritzen da: Prebentzioa-Babesa-Jazarpena-Erantzuna

Laburbilduz, arrisku eta mehatxuak mugen gainetik daude eta horregatik, gizarte segurua lortu nahi bada, agintaritzak eskumendunen arteko kooperazioa eta lankidetzak ezinbestekoak dira erantzun ahal izateko.



ARDATZEN-ARRISKUEN-JARDUERA ILDOEN ARTEKO HARREMANEN TAULA

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorrak segurtasunaren ikuspegi oso bat aurkezten du eta horretan hainbat helburu eta jarduera-ildo definitzen dira, definitutako bost ardatz estrategikoen ikuspuntutik.

Arriskuen gainean egindako azterketa oinarri, eta ezarritako helburuak lortzera bideratutako jarduera-ildo estrategikoen deskribapena kontuan hartuta, identifikatutako arrisku eta mehatxu bakoitzerako jarduera-ildoen ikuspegi bat aurkeztu zen, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra egituratzen duten ardatzen arabera antolatuta. Jarduera-ildo horiek egin dira edo egiten ari dira, batzuk gauzatzeko epea Plan honen indarraldia amaitu artekoa baita.

Arrisku eta mehatxuekin lotuta, jarduera-ildoen garapenerako ezinbestekoa da etengabeko ebaluazioa eta ildo horien jarraipena egitea. Jarduera horiek helburu bakoitzaren barruko arloetan eragina izan dezatela lortu nahi da eta horregatik, jardueren garapena bete dadin denbora gehiago behar da, ebaluazio-aldi hau baino gehiago, Planaren amaierara arte, hau da, 2019. urtera arte.

ARDATZEN-ARRISKUEN-JARDUERA ILDOEN ARTEKO HARREMANEN TAULA

		ARRISKUAK						
		Terrorismoa	Zibermehatxuak	Delinkuentzia	Larrialdiak eta hondamendiak	Azpiegitura kritikoaren urrakortasuna eta oinarritzko zerbitzuak	Indarkeria sexista	Bideetako ezbehar-tasa
ESPORren ARDATZAK	1 ardatza Herritarrekiko zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> • Inteligentzia egiturak egokitzea, prebentzio aktiboan oinarritutako zerbitzu bat eskaintzeko • 79 instrukzioaren garapena 	<ul style="list-style-type: none"> • Informatikarekin, internetekin eta abarrekin lotutako delituei buruz aurkeztutako salaketak ikertzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organiko berrira egokitzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Erlazionatzeko moduen bilakaera, teknologia berrien arloan presentzia bermatuz • "Alderantziko 112 " ekimen europarrera egokitzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Sistemen jarraipena bermatzeko, sistema erredundanteak ezartzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen indarkeriaren arloan prebentzioari eta arretari buruzko protokolo eta prozeduren azterketa, egin litezkeen hobekuntzak aurkitzeko • Tratu txarregatik arreta jaso duten emakumei buruzko jarraipen-txostenak egitea 	<ul style="list-style-type: none"> • Erlazionatzeko era berriak garatzea eta teknologia berrien arloan presenteago egotea (web-orria, 011 telefonoa eta sare sozialak)
	2 ardatza Planifikazioa	<ul style="list-style-type: none"> • Antolaketa-egitura osoan zehar, inteligentzia eredu integrala eta integratua ezartzea • Mehatxu terroristaren aldizkako ebaluazioa • Islamismo Erradikalaren aurkako plan estrategikoa 	<ul style="list-style-type: none"> • Informazio-sistemen eta komunikazio-sareen osotasuna, konfidentzialtasuna eta eskuragarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak sortzea • Azpiegitura kritikoak babesteko jardueren jarraipena 	<ul style="list-style-type: none"> • Ertzaintzaren Plan Estrategikoaren – Ortzimuga 2016-jarraipena • Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren Plan Estrategikoa 2012-2016 garatzea • Gorroto-delituei buruzko datuak jasotzeko sistema mantentzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadiko Babes Zibileko Plana eguneratzea • Uholde Arriskuari aurre egiteko Larrialdi Plan berezia egokitzea • Urteko Neguko Bidezaintza Plan Estrategikoa 	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadiko Azpiegiturak eta Oinarritzko Zerbitzuak Babesteko Planaren garapena-NEXPROTEC proiekt. • Azpiegitura Kritikoetarako Laguntza Operatiboko Planak egitea 	<ul style="list-style-type: none"> • "Berdintasun politikak bultzatzea" eta "Lan- eta familia-bizitza uztartzea" mahaiei Ortzimuga 2016 planaren barruan dagozkien ekintzak gauzatzea eta sustatzea. • Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan lan-taldeek izan dituzten ekipoak eta sistematika mantentzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Informazio-sistema inplementatzea, datuak jaso eta trukatzeko • Bide-Segurtasuneko eta Mugikortasun Segururako eta Iraunkorrerako Plan Estrategikoa 2015-2020 • Salgai arrisksuak errepidetik edo trenbidetik garraiatzean dagoen istripu-arriskuari aurre egiteko Larrialdi Plan Berezia egokitzea.



ARRISKUAK							
	Terrorismoa	Zibermehatxuak	Delinkuentzia	Larrialdiak eta hondamendiak	Azpiegitura kritikoaren urrakortasuna eta oinarritzko zerbitzuak	Indarkeria sexista	Bideetako ezbehar-tasa
3 ardatza Koordinazioa	<ul style="list-style-type: none"> Beste polizia-kidego batzuekin informazioa trukatzea 	<ul style="list-style-type: none"> Ziberdelinkuentziaren aurkako proiektu europarretan parte hartzea Europar Batasuneko FIDES proiektuaren eta ARIES proiektuaren jarraipena 	<ul style="list-style-type: none"> Epaileren, Ministerio Fiskalaren eta Ertzaintzaren Koordinaziorako lan-taldeko bilerak Segurtasun Pribatua Koordinatzeko Batzorde mistoaren bilera Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren arteko Lankidetzaren hitzarmena, Aurkezpenen eta Agerraldien "APUD ACTA" Bulegoko funtzionamendurako Ertzaintzak "EBko Ortzimuga 2020 ikerketa eta hobekuntzarako programan" parte hartzea. Udalekiko lankidetzaren hitzarmenak ezartzea Lagundu Plana garatzea, Euskadiko Segurtasun Pribatuak barne hartzen dituen sektore guztien arteko harreman efektiboa lortzeko. Tetra-ENBOR SAREA lankidetzaren hitzarmena AFIS protokoloa, udaltzainak EUDELekeko lan-taldeak, ikuskizunetako lokalekin eta jolas jarduerekin lotutako gaiak. 	<ul style="list-style-type: none"> ENBOR SAREA (Segurtasuneko Komunikazioen Sarea) komunikazio-eredua, Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak Euskadiko segurtasun eta larrialdietako zentral operatibo guztiekin konektatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> Sailen arteko lan-taldeak, babeserako jarduerak koordinatzeko eta gainbegiratzeko 	<ul style="list-style-type: none"> Saileko Talde Teknikoaren (STT) aldizkako bilerak Udalen, Ertzaintzaren, Mankomunitateetako ordezkarien eta Osakidetzaren arteko protokoloak, erakundeen artekoak 	<ul style="list-style-type: none"> Trafikoaren eta errepideen arloan, beste erakunde batzuekiko lankidetzaren Udaltzaingoen Trafiko Zuzendaritzarekin lankidetzaren egindako bide-segurtasunari buruzko kanpainak



ARRISKUAK							
	Terrorismoa	Zibermehatxuak	Delinkuentzia	Larrialdiak eta hondamendiak	Azpiegitura kritikoan urrakortasuna eta oinarritzko zerbitzuak	Indarkeria sexista	Bideetako ezbehar-tasa
4 ardatza Prestakuntza	<ul style="list-style-type: none"> Fenomeno terroristaren aurrean jarduteko-pautak batzeko prestakuntza-jardunaldiak Ertzaintzaren ikastaroak: <ul style="list-style-type: none"> Terrorismo yihadista Udaltzaingoen ikastaroak: <ul style="list-style-type: none"> Terrorismo yihadista: Martxoak 18 – uztailak 24 	<ul style="list-style-type: none"> Ziberjazarpena prebenitzeko hitzaldiak ematea heziketa-zentroetan Ertzaintzaren ikastaroak: <ul style="list-style-type: none"> Delitu informatikoak Oinarritzko ikerketa 	<ul style="list-style-type: none"> Joko eta Ikuskizunen Unitateko eta Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzako langileei prestakuntza-ikastaroak ematea, makinei eta joko sistemei buruz, eta material piroteknikoari buruz. Ertzaintzaren ikastaroak: <ul style="list-style-type: none"> Zaintza eta jarraipena Delinkuentziaren ikuspegia Agintarien Babesa Udaltzaingoen ikastaroak: <ul style="list-style-type: none"> Herritarren Babeserako Lege berria eta Zigor Kodea 	<ul style="list-style-type: none"> Larrialdiei eta Meteorologiari buruzko prestakuntzarako eta ikerketarako foro teknikoak garatzea Udalek antolatutako ikuskizunei eta jolas jardueri buruzko prestakuntza-ikastaroak Ertzaintzaren ikastaroak: <ul style="list-style-type: none"> LAZLZ eguneratzea eta hobetzea Ikuskizun piroteknikoen arloko prestakuntza Muturreko meteorologia segurtasunaren ikuspegitik Birziklatzea Ingurumena Miñoiak Birziklatzea Neguko teknikak 	<ul style="list-style-type: none"> Arrisku- eta mehatxu-mailaren araberako segurtasun neurriei buruzko barruko prestakuntza (antolaketa-teknikak, orokorrak,...) Ertzaintzaren ikastaroak: <ul style="list-style-type: none"> Polizia-eginkizunen eta –operatiboan planifikazioa 	<ul style="list-style-type: none"> Genero indarkeriari buruzko informazio-hitzaldiak herritarrei eta profesionalen taldeei Ertzaintzaren ikastaroak: <ul style="list-style-type: none"> Prebentzio psikoedukatiboa GI/EI Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko on-line Prestakuntza, JABETUZ 	<ul style="list-style-type: none"> Unibertsitatetik kanpoko ikasleei eta prestatzaileei mugikortasun segururako hezkuntzari buruzko ikastaroak Maila guztietako bide-prestakuntza, mugikortasun seguruari begira. Ertzaintzaren ikastaroak: <ul style="list-style-type: none"> Trafiko arloko dokumentoskopia



		ARRISKUAK						
		Terrorismoa	Zibermehatzuak	Delinkuentzia	Larrialdiak eta hondamendiak	Azpiegitura kritikoaren urrakortasuna eta oinarriko zerbitzuak	Indarkeria sexista	Bideetako ezbehar-tasa
5 ardatza	Komunikazioa	<ul style="list-style-type: none"> Ideiak eta esperientziak partekatzeko helburuarekin, arlo horretako profesionalekin jardunaldiak antolatzea 	<ul style="list-style-type: none"> Hedabideen bitartez, informatikako delituei buruz informatzea edo/eta ohartaraztea. 	<ul style="list-style-type: none"> Segurtasun Publikoaren estatistikaren informazioa zabaltzea 	<ul style="list-style-type: none"> Euskalmeten irismen publikoa sustatzea, horretarako hedabideetan presenteko egonez. Sare sozialetan etengabeko presentzia Mugikorretarako APP aplikazioak egitea 	<ul style="list-style-type: none"> Enpresek, beren interesagatik edo daukaten arriskuagatik, horrela eskatzen badute, horiekin bilerak egitea 	<ul style="list-style-type: none"> Indarkeria hori ager dadin ekiditeko helburuarekin informatzea prebenitzeko, ezagutzera emateko, zabaltzeko eta arriskua azaltzeko Bileretara joatea eta Ertzaintzaren kolektiboan txertatzea Sailarteko Talde Teknikoaren dinamika- II Akordioa, aktak helaraziz. 	<ul style="list-style-type: none"> Euskadiko trafikari buruzko informazioa jasotzeko smartphonetarako aplikazioa garatzea Mugikortasunaren eta bide-Segurtasunaren behatokia sustatzea



JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Plan honek barne hartzen dituen helburuen eta arduren betetze-maila zehaztu ahal izateko, hauek guztiak egin behar izan dira: definitu, lortu beharreko helburua deskribatu eta emaitza lortzeko garatu beharreko jardueren zerrenda izan. Prozesu hori neurtzeko estrategien eta metodo berezien bidez ebaluatu behar da bere aurrerapen-maila zehazteko.

Planaren arrakasta, helburu estrategikoen betetze-maila kontuan hartuta, neurtuko da eta horretarako etengabeko ebaluazioa egin beharko da, plana etengabe aldatzen dabilen ingurunera egokitzeko aukera emango diguna.

Hori dela eta, ildo estrategikoetan lortutako emaitzen jarraipena egiten da, helburuen betetze-mailan izan litezkeen desbideratzeak hauteman eta aurreikusteko eta ondorioz, jardueretan egin beharreko hobekuntzak identifikatzeko

